**10/2005 Foru Araua, 2005eko abenduaren 16koa; honen bidez Bizkaiko Hiri Hondakinak Kudeatzeko 2005-2016 Plan Integrala onetsi da.**

HITZAURREA

Nazioarteko gidalerroei jarraituz, Bizkaiko Foru Aldundiak hiri hondakinen arloan ezarritako politikaren helburua herritarrek ahalik zerbitzurik hoberena jasotzea da, kostua Lurralde Historiko osoan ahalik homogeneoa eta doituena dela eta ingurumena ahalik ongien zaintzen dela, indarreko arautegian ezarritako betekizunak eta garapen iraunkorraren printzipioak betetzeko.

Prebentzioa eta jatorrian murriztea, berrerabilpena, balorizazio material eta energetikoa eta balorizatzerik ez dagoen hondakin behar bezala ezabatzea sustatzeko asmoarekin, Euskal Herriko Ingurumena babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorrak ezarri du lurralde historikoetako foru organoek berariazko planak egin behar dituztela hiri hondakinen kudeaketarako esparru-plana garatzeko.

3/1989 Legean ezarritakoa betetzeko, plan horietan helburuak, garatu beharreko estrategiak, sortuko diren azpiegiturak eta finantzatzeko sistemak zehaztu behar dira.

Bizkaiko Foru Aldundiaren irailaren 28ko 164/2004 Foru Dekretuan ezarritakoa betetzeko (horren bidez “Bizkaiko Lurralde Historikoko Hiri Hondakinen Plana” onesteko prozedura ezarri da), Ingurumeneko foru diputatuak, 2004ko azaroaren 9an, aipatu plana onesteko prozedura abiarazi zuen: Bizkaiko Hiri Hondakinak Kudeatzeko 2004-2016 Plan Integralari buruzko azterlana bidali zion Batzar Nagusietako Nekazaritza eta Ingurumen Batzordeari, eta harekin batera baita Ingurumen Eraginari buruzko Aldez Aurretiko Azterlana ere.

Batzar Nagusietako Batzorde Bereziak Hiri Hondakin Solidoen II. Plana aztertzeko eta onesteko 2005eko ekainaren 13an eman zuen ebazpenean bildutako oharrak eta gogoetak aurrean

**Norma Foral 10/2005, de 16 de diciembre de 2005 por la que se aprueba el Plan Integral de Gestión de Residuos Urbanos de Bizkaia 2005-2016.**

PREÁMBULO

Siguiendo las directrices internacionales, la política de la Diputación Foral de Bizkaia en relación a los residuos urbanos persigue proporcionar a la ciudadanía un servicio de calidad, con un coste lo más homogéneo y ajustado posible en todo el Territorio Histórico y con los máximos niveles de protección medioambiental, que permitan el cumplimiento de las exigencias de la normativa vigente y los principios del desarrollo sostenible.

Con el fin de hacer efectivos los principios de prevención y minimización en origen, incentivación de la reutilización, valorización material y energética y, finalmente, eliminación adecuada de los residuos que no puedan valorizarse, la Ley 3/1998, General de Protección del Medio Ambiente del País Vasco establece que los Órganos Forales de los Territorios Históricos elaborarán planes en desarrollo de la planificación marco de gestión de residuos urbanos.

En cumplimiento de lo establecido en la Ley 3/1989 estos planes deberán contener especificaciones relativas a objetivos a cumplimentar, estrategias a desarrollar, creación de infraestructuras y sistemas de financiación.

En cumplimiento de lo establecido en el del Decreto Foral 164/2004, de 28 de septiembre, de la Diputación Foral de Bizkaia, por el que se establece el procedimiento de aprobación del “Plan de Residuos Urbanos del Territorio Histórico de Bizkaia”, el Diputado Foral de Medio Ambiente inició, el 9 de noviembre de 2004, el procedimiento de aprobación del plan de residuos con la remisión a la Comisión de Agricultura y Medio Ambiente de las Juntas Generales de Bizkaia de un documento de estudio del Plan Integral de Gestión de Residuos Urbanos de Bizkaia 2004-2016, junto con el Estudio Preliminar de Impacto Ambiental del mismo.

Fruto de la incorporación de las consideraciones y comentarios al documento de estudio recogidas en la resolución aprobada por la Comisión Especial de Juntas Generales de Bizkaia

aipatutako azterlanari gehitu zitzaizkion eta horren ondorioz “Bizkaiko Hiri Hondakinak Kudeatzeko II. Plan Integrala 2005-2016” izeneko dokumentua prestatu zen. Honen ingurumen-eraginaren baterako ebaluazioa egin da, jendeaurreko erakusketaren izapidea burutu da, ukitutako herri administrazioak entzun dira, eta Euskal Herriko Ingurumen-Batzordeak, Euskal Autonomia Erkidegoaren Ingurumenerako Aholku Batzordeak eta Bizkaiko Hiri Hondakinen Lurralde Kontseiluak egindako txostenak aztertu dira.

para el estudio y aprobación del II Plan de Residuos Sólidos Urbanos, en sesión celebrada el día 13 de junio de 2005, resultó el documento denominado “Proyecto de II Plan Integral de Gestión de Residuos Urbanos de Bizkaia 2005-2016”, que ha sido sometido al procedimiento de evaluación conjunta de impacto ambiental, a los trámites de exposición pública y audiencia a las Administraciones Públicas afectadas, así como a los informes de la Comisión Ambiental del País Vasco, Consejo Asesor de Medio Ambiente de la CAPV y Consejo Territorial de Residuos Urbanos de Bizkaia.

Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Araubide eta Jardunbideari buruzko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauko 7.2. artikuluko a) idatz-zatian ezarri da Lurralde Historiko osoa hartzen duten arlokako planak Batzar Nagusiek onetsi behar dituztela.

La Norma Foral 3/1987, de 13 de febrero sobre Elección, organización, régimen y funcionamiento de las Instituciones Forales del Territorio Histórico de Bizkaia prevé en su artículo 7.2 apartado a) la competencia de las Juntas Generales para la aprobación de los Planes Sectoriales que afecten a todo el territorio.

FORU ARAUA

**1. artikulua.-** Bizkaiko Hiri Hondakinak Kudeatzeko 2005-2016 Plan Integrala onetsi da. Foru arau honen eranskinean dago.

**2. artikulua.-** Bizkaiko Foru Aldundiak hiri hondakinen arloan ezarritako politikaren helburua herritarrek ahalik zerbitzurik hoberena jasotzea da, kostua Lurralde Historiko osoan ahalik homogeneoa eta doituena dela eta ingurumena ahalik ongien zaintzen dela, indarreko arautegian ezarritako betekizunak eta garapen iraunkorraren printzipioak betetzeko.

**3. artikulua.-** Bizkaiko Hiri Hondakinak Kudeatzeko 2005-2016 Plan Integralean ezarritakoaren arabera, Bizkaiko Lurralde Historikoan hondakinak kudeatzeko oinarritzat hartu beharreko printzipio estrategikoak hauexek dira:

a) Hondakinen kudeaketa iraunkorraren printzipioa.
b) Kudeaketaren hierarkia bateratuaren printzipioa.
c) Kudeaketa integratuaren printzipioa.
d) Hondakinen sorrera aurrezaintzeko printzipioa.
e) Hondakinak ahalik gehien balorizatzeko

NORMA FORAL

**Artículo 1.-** Se aprueba el Plan Integral de Gestión de Residuos Urbanos de Bizkaia 2005-2016, recogido en anexo de la presente Norma Foral.

**Artículo 2.-** El objetivo principal de la política de gestión de los residuos urbanos del Territorio Histórico de Bizkaia es proporcionar a la ciudadanía un servicio de calidad, con un coste lo más homogéneo y ajustado posible en todo el Territorio Histórico de Bizkaia y con los máximos niveles de protección medioambiental, que permitan el cumplimiento de las exigencias de la normativa vigente y los principios del desarrollo sostenible.

**Artículo 3.-** Los principios estratégicos en los que debe basarse la gestión de los residuos del Territorio Histórico de Bizkaia de acuerdo con las determinaciones previstas en el Plan Integral de Gestión de Residuos Urbanos de Bizkaia 2005-2016 son los siguientes:

a) Principio de gestión sostenible de los residuos.
b) Principio de jerarquía comunitaria de gestión.
c) Principio de gestión integrada.
d) Principio de prevención de la generación.
e) Principio de maximización de la

printzipioa.

f) Isurketak ahalik gehien gutxitzeko printzipioa.
g) Autosufizientziaren printzipioa.
h) Hurbiltasunaren printzipioa.
i) Subsidiariotasun administratiboaren eta baterako erantzukizunaren printzipioa.
j) Prezioen gardentasunaren printzipioa.
k) Informazioaren gardentasunaren printzipioa.

**4. artikulua.-** Aurreko artikuluan azaldutako printzipio estrategikoen arabera, 2016. urterako lehen mailako hondakinik eta hondakin gordinik batere ez isurtzea izango da Bizkaiko hiri hondakinen kudeaketarako planaren helburu estrategikoa.

**5. artikulua.-** Oro har, hiri hondakinak tratatzeko egiten diren azpiegitura berriak publikoak izango dira. Beraz, azpiegitura horiek garatzen dituzten sozietate-erakundeetan kapital pribatuak duen partaidetza ezin da izan %50etik gorakoa.

**6. artikulua.-** Plana indarrean dagoen bitartean, hiri hondakinak tratatzeko azpiegitura eta sistemetan ezin da tratatu etxeko lehen mailako hondakinen eta haiekin berdinetsi ahal direnen %50 baino gehiago, horrela hondakin horien balorizazio materiala eragotzi ezean.

**7. artikulua.-** Bizkaiko Lurralde Historikoko hiri hondakinen planak onesteko prozedura ezarri duen irailaren 28ko 164/2004 Foru Dekretuko 3. artikuluan ezarritakoaren ondoreetarako, Bizkaiko Hiri Hondakinak Kudeatzeko 2005-2016 Plan Integralaren unean uneko aldaketa izango dira 2, 3, 4, 5 edo 6. artikuluko edukia ukitzen ez dutenak.

**Azken xedapenetako lehena.-** Foru arau hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

**Azken xedapenetako bigarrena.-** Bizkaiko Foru Aldundiari baimena eman zaio foru arau hau garatzeko eta betetzeko behar diren xedapen guztiak emateko.

valorización.

f) Principio de minimización del vertido.
g) Principio de autosuficiencia.
h) Principio de proximidad.
i) Principio de subsidiariedad administrativa y de responsabilidad compartida.
j) Principio de transparencia de precios.
k) Principio de transparencia informativa.

**Artículo 4.-** De acuerdo con los principios estratégicos definidos en el artículo anterior, se establece como objetivo estratégico de la gestión de los residuos urbanos de Bizkaia alcanzar para el año 2016 el vertido cero de los residuos primarios o crudos objeto del Plan.

**Artículo 5.-** Se establece, como criterio general, el carácter público de las nuevas infraestructuras para el tratamiento de los residuos urbanos, de forma que la participación de capital privado en las estructuras societarias que desarrollen dichas infraestructuras no podrá ser superior al 50%.

**Artículo 6.-** Ninguna infraestructura ni sistema de tratamiento de los residuos urbanos podrá tratar de manera directa más del 50% de los residuos primarios de origen doméstico o asimilable durante el periodo de vigencia del Plan, salvo que esta limitación impida una mayor valorización material de dichos residuos.

**Artículo 7.-** A los efectos previstos en el articulo 3 del Decreto Foral 164/2004, de 28 de septiembre, por el que se establece el procedimiento de aprobación de los Planes de Residuos Urbanos del Territorio Histórico de Bizkaia, tienen la consideración de modificaciones puntuales del Plan Integral de Gestión de Residuos Urbanos de Bizkaia 2005-2016 aquellas que no afecten al contenido de los artículos 2, 3, 4, 5 y 6.

**Disposición Final Primera:-** La presente Norma Foral entrará en vigor a partir del día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial de Bizkaia.

**Disposición Final Segunda.-** Se autoriza a la Diputación Foral de Bizkaia para dictar cuantas disposiciones sean necesarias para el desarrollo y ejecución de la presente Norma Foral.